

HARRERA GARAIA

Periodo de acogida



HARRERA GARAIA

ZER DA HARRERA GARAIA?

Haurra, eskolara lehen aldiz joaterakoan, ezezagun egiten zaion errealitate berri bati egin behar dio aurre. Bapatean, familiarterako mundu seguru eta ezagunetik, erabat ezezagun zaion egoera bati egin behar dio aurre; Pertsona berriak, zeregin berriak, espazio berriak...

Familiatik banandu behar izatea ez da beti erraza haurrentzat. Egokitze epe bat behar dute, non hezitzailearekin afektibotasuna landuko duen, espazio eta material berriak ezagutuko dituen. Azken finean, konfidantza eta segurtasuna lortuko duen epe bat.

Haurretaz gain, familiak eta hezitzaileak ere egokitu behar dute. Familiak banaketa nola bizitzen duen, eragina du haurraren gain. Haurrek inguruko sentimenduak bereganatzen dituzte, tristezia eta segurtasun eza baita lasaitasuna eta konfidantza ere bai. Sentimendu kontraesankorrak sortuko zaizkizue, beldurrak, kezkak, konfidantza eza... eta honek askotan zuen haurra eskolara eramatean ongi egin duzuen ala ez pentsatzera eramaten zaituztete (ongi egongo da?, negarrez egongo da?). Lasai egon, normala da.

Hezitzaileok ere, haur bakoitzaren errealitatera egokitu behar dugu, erritmo indibidualak aztertuz eta pixkanaka talde erritmoetara gerturatuz.


Bereizketa fisikoaz gain, haurra ez da seguru ezta babestua sentitzen eta hori da prozesu honen zailtasunik handiena.

Askotan hastapen garai honetan, haurrak negar asko egin dezake, ez du geratu nahi izango, berea den zerbaiti indarrez hartuko dio, jo egin dezake. Baita ere fisiologikoak diren erantzunak izan ditzazke, adibidez, botakak, goserik ez izatea, loaldien aldaketak. Beste batzutan zorientasuna aurkitu dezakegu eskolara etortzerakoan, sekulako aktibitatea, urduritasuna...Guzti hau normala da. Ez duzue izutu behar. Denak dira erreakzioak eta positiboa da haurrak sentimendu horiek kanporatzea.

GARRANTZITSUA DA...



ZER EGIN DEZAKEGU ORAIN?



MOMENTUA IRITSI DA...

Errespetatu ezazu haurren erritmoa.

Hezitzaileekin komentatu nola dagoen etxean, nola egin duen lo, edo kezka sortzen dizkizuen edozein egoera.

Ez esan gezurrik. Agurtzerakoan gogoratu haurrei gero etorriko zaretela. Ez luzatu gehiegi agurrak.

Ez izan inolako arazorik haurrek segurtasuna eman diezaizkien objektuen bat ekartzen badu (txupetea, panpina...).

Gogoratu ezazu, prozesu guztiak gora beherak dituela eta desberdinak direla; haur bat, egokitze prozesu bat.

Bere sentimenduei hitzak jarri. Negar egiten badu, esaiozue ulertzen duzuela baina lanera joan behar duzuela.

Hurrengo egunean gertatuko dena esan eta egunean bertan gogoratu (pasabidean egongo naiz, kanpora joango naiz eta minutu batzuk barru berriro sartuko naiz...)

Hezitzaileak gelan jarriko dituen eserleku bat aukeratu. Prozesu guztian hori izango da zuen lekua.

Isiltasuna. Nahiz eta zuen seme-alabak jolastea eskatu, ez izan bere jolasaren dinamizatzaile. Ez izan inizatibarik, bere eskaerari erantzun simple bat eman.

Ez behartu haurra hezitzaileengana edo gelakideengana gerturatzerara. Denbora behar da pertsona berriak ezagutzeko.

PERIODO DE ADAPTACIÓN

¿QUÉ ES EL PERIODO DE ADAPTACIÓN?

Cuando una criatura comienza por primera vez en la escuela, tiene que hacer frente a una realidad nueva y desconocida. Pasa de repente del mundo familiar, conocido y seguro, a una situación totalmente desconocida; personas nuevas, quehaceres nuevos, nuevos espacios...

Separarse de la familia no siempre es fácil para nuestras hijas o nuestros hijos. Necesitan un periodo de adaptación donde trabajarán la afectividad con su educadora, conocerá los nuevos espacios y materiales. En pocas palabras, un tiempo en el que logrará la confianza suficiente y la seguridad que necesita.

Al mismo tiempo que nuestras criaturas, las familias y las educadoras también se tienen que adaptar. El cómo la familia vive la separación, influye directamente en los más pequeños. Los y las “txikis”, interiorizan los sentimientos de su entorno, tristeza y falta de seguridad, y también la tranquilidad y la confianza. A menudo os surgirán sentimientos encontrados, miedos, dudas, falta de confianza... y todo ello os llevará a preguntaros si habéis hecho bien en traerlas y traerlos a la escuela (¿estará bien?, ¿estará llorando?...) Estad tranquilos y tranquilas, es normal.

Las educadoras también nos tenemos que adaptar a la realidad de cada “txiki”, analizando los ritmos individuales y poco a poco adaptándonos al ritmo del grupo.


Además de la separación física, vuestra hija o vuestro hijo, no se siente ni protegida ni seguro, y esa es la mayor dificultad de este proceso.

A menudo, en el periodo de adaptación, los niños y las niñas pueden llorar mucho, no se querrá quedar, agarrará con fuerza algún objeto propio, puede agredir. Además también puede haber respuestas fisiológicas, por ejemplo, vómitos, inapetencia, cambios en el sueño. Otras veces, al venir a la escuela podemos percibir felicidad, una gran actividad, nerviosismo... todo esto es normal. No os asustéis. Todas ellas son reacciones y es positivo que se exterioricen esos sentimientos.

ES IMPORTANTE...



¿QUÉ PODEMOS HACER AHORA?



HA LLEGADO EL MOMENTO...

Respetad el ritmo de la niña o del niño

Comentad con la educadora como está en casa, como duerme, o cualquier situación que os provoque dudas.

No le mientas. Al despediros decir a vuestro hijo o a vuestra hija que luego venís a buscarle. No alarguéis en exceso las despedidas.

No tengáis reparo en traer a vuestra criatura con un objeto que le tranquilice o que le de seguridad (chupete, muñeco...).

Recordad que todo proceso tiene altibajos y que son diferentes; una criatura, un periodo de acogida.

Poner palabras a sus sentimientos. Si llora, decirle que lo entendéis y que sabéis que no quiere quedarse, que está triste... pero que tenéis que ir a trabajar.

Contarle lo que pasará el día siguiente y recordárselo el mismo día (estré en el pasillo, me iré fuera y dentro de unos minutos volveré a entrar...)

Elige un asiento que previamente pondrá la educadora en el aula. Ese será vuestro sitio durante todo el proceso.

Silencio. Aunque vuestro hijo o hija os pida jugar, no seáis dinamizadores de su juego, no tengáis iniciativa, darle una respuesta simple a su petición.

No obliguéis a vuestra hija o hijo a acercarse a la educadora o a las compañeras y compañeros. Para conocer gente nueva es necesario un tiempo.

